

**JOSE JOAKIN ARTEAGA
MIXIOLARI ANDIA (1878-1926)**

Manuel Lekuona zanari eskiñitako artikuluan esan zan oraintsu galdu genduan euskal-idazle onek Karmel aldizkarian ez ebala inoz idatzi ezer. Gaur geuk dakargu aren lan bat orri oneitara. Gaia ez dau berak asmatu, erderatik euskerara itzulia baiño ez da. Orain inurogeta-ka urte, GURE MIXIOLARIA aldizkarian argitaratua. Aldizkari au 1924n asi ta 1936ko gerratera artean argitaratu zan, izkuntza bitan, euskeraz eta erderaz, erderaz emoten zan lana bera euskeraz agertzen zala. Munduan zear mixio lanetan eragoien gure mixiolariak erderaz bialtzen ebezan barniak euskara itzulita agertzen ziran aldizkari orretan. Euskera errez eta txukunean, gaiñera. Jose Ariztimuño apaiza zan Gure Mixiolaria orren zuzendar. Berak itzultzen zituen euskerara erderazko lan asko. Baiña beste asko beste euskaldun batzuei eskuratzen eutsézan itzultzeko. Emen dakargun au Ariztimuñok berak erderaz idatzia da, eta M. Lekuonak euskeratua. Zergaitik Ariztimuñok berak egin eikeana beste bati emon? Bear bada, artikuluan mixiolariaren erderazko bertso batzuk sartzen zituezalako. Bertsoak euskeratzeko bera baiño Lekuona esku obekotzat eukalako.

Eta nor dogu Jose Joakin Arteaga au? Aita Santuak karmeldar euskaldunen ardurapean 1918n ipiñi eban Urabako (Colombiako) mixioaren buru izateko izentau eban praillea, naparra, Lizarra'ko semea (ez ain zuzen artikuluan esaten dan lez, Inuñekoa). Urabako lurretara 1919 eldu eta an zazpi urte baiño egin ez zituen arren, itzalezko lana egin eban bertan: eleizak, eskolak (ume-eskolak eta lan-eskolak) eregi,

aldizkariak sortu, bearrezko ziran bide barriak urratu, mixio are-
tako eleiz-edestia aztertu eta idatzi, eta abar. Bizi zala, Colombia-
ko Academia de la Historia dalakoak bere bazkide egin eban eta
48 urte zituela adiñik ederrenean il zanean, Urabak eta Colom-
biako agintari eta kultur-erakundeak ikusgarritzko omenaldiak
egin eutsuezan. Lizarrako seme onek, nafar garbi eta jator onek,
ez eban ukaitzen bere euskal-odola, eta bai Colombiar guztien
aurrian agiri-aginian autortzen. Ameriketara joan baino lentxo-
go, Azkue andiari mesedetxo bat egin eutsan: San Joseri atara
eutsan kantu baten euskerazko bertsoak erderazko bertsoan ipi-
ñi.

Eleiz-ikasketak Comillas-en asi zituen eta Karmengo Ama-
ren soñekoa jantzi ondoren, karmeldarren artean amaitu. Ariz-
timuñok, berau be Comillasen ikasturteak egiña zanez, an eza-
gutu eban, bere leenagoko Ikastetxera ikustalditxo bat egitera
joan jaken baten, Santanderko gotzaiñak emoniko gotzaiñ-
erestuna eskuan ebala, artikuluan ikusten dan lez.

Euskerazko titulua artikulua onelakoa dau: Gizon aundi
baten egintza aundiak, eta erderazkoa: La vida fecunda de un
héroe. Karmel onen orrietan jasotzea edo jaso izatea merezi
daualakoan emoten dogu emen eta era batera orain inurogei
urte idazten zan euskeraren erakusgarri.

L. Akesolo

GIZON AUNDI BATEN EGINTZA AUNDIAK

Bestek emondako eraztuna

Seminarioan geunden. Antziña antxe bertan ikasle izanda-
ko mixiolari bat zetorrela esan ziguten. Laister giñan bere ingu-
ruan.